

Ravel heriotza antolatzen



Ravel

Jatorrizko izenburua: *Ravel*
 Egilea: Jean Echenoz
 Itzultzailea: Gerardo Markuleta
 Argitaratze urtea: 2007
 Argitaletxea: Meettok

KARLOS DEL OLMO

Ohiko biografia ingeles luzeetan ez bezala, ehun eta hogeita bi orri gutxi gora-behera besterik ez du behar izan Jean Echenozek Ravelen hamar urte bizialdi laburbiltzeko. Sugar baten moduko eleberria, udako gau eder bateko izar iheskor bezain ahaztura mingarriko bat. Biografia, asmazio nobela, eleberri historikoa, *nouveau nouveau roman*? Idazleak berak elkarrizketa batean baino gehiagotan adierazi duenez, garrantzitsuena ez da bilatzen den gauza, bilatze horrek eragiten dituen gertaerak baizen; antzeko zer edo zer susmatzen da *SPrako tranbia* euskal eleberriarekin antzekotasun bat edo beste duen idazlan saridun honetan (François-Mauriac saria irabazi du eleberriak): badakigu zer gertatuko den amaieran, baina ez digu axola, Itakarako bidea bera delako, lan honetan ere, inportanteena. Kontrabaxu ikasketak egin zituen Jean Echenozek, eta eleberria, zelan edo hala, partitura baten modura paratu du, non bizitza erreala, benetakoa, fikzio hutsa baino askozaz ere interesgarriagoa bide den.

Desagertze bat izaten da eragile nagusia idazle honen liburu gehienetan eta *Ravelen* ere antzeko zer edo zer dago: gaixotasunean galduz joate bat. Hil aurretik inongo testamenturik edo irudi zein ahotsaren grabaziorik ez uzteko hainbestearino ahalegindutako pertsona aurkigaitz baten xerka dihardu idazleak. Hainbat liburu, kontakizun, testigantza eskuartean erabili arren, Ravelek beti egiten dio saihests pertsonaia erreal moduan. Noren buruan ez daude, bada, Jeanen erreferentzia ukaezin den Schowb-en liburuko *Bizi Alegiazkoak*? Material ugari bildu ditu Jean Echenozek, eta hainbat egoera nobelesko ere bai, dena dela, ehun eta hogeita orri hauetara ez ditu denak ekarri, kontakizuna ez desorekatzearen. Ravel bizi izan zen garaia oso aldi iluna zen, orokorrean, mundu osoan; halere, artearen aldetik oparotasuna emaro zerion bolada izan zen. Ravel bera, nonbait, garaiaren lekuko gertatu zen: gauza ederrez eta artista handiz inguratutako dandy moduko hura gaixotasunaren suan errauts bihurtuta, haize bortitzek lau haizeetara barreiatu zuten.

Testuak musika partituraren eta erlojuaren zehaztasun mekaniko eta matematikoa du, baina ez du falta koblakariaren originaltasun dotoreziakoa. Idazlea beti joaten da apur bat harantzago, urrunxeago pertsonaiaren historian eta istorioan. Emaizta: liburu maitagarri, zehatz eta zorrotz bat, mingarri bezain erreal. Publikoak gurtzen ere zuen musikari ospetsuak betiko iraungo du gailurrean; pertsona bera, ordea, tristurak eta insomnioak jota hil zen, munduarekiko lokarriak apurka-apurka eta ezarian eteten zitzaizkiola, metronomoaren zehaztasun ankerrak gobernatuta legez. Zer geratzen zaio konpositore bati musika gehiago konposatzerik ez badu? Partiturak irakurri ezinik badago, pianoan eskalak egiteko gauza izan arren? Irakurmena eta idazmena galduta, entzumena eta mintzamena besterik ez zitzaizkion gelditu kontsolagarri ziburutarrari. Gaixotasun larri guztien artetik, ez da zigor lar handia sentitzea, egiaztatzea norberaren burmuin eta adimena bueltakorik gabe

endekatuz doazela? Ez da asko kostatzen hitzezko eraikin horren azpian bolero amaiezin baten oihartzuna entzutea.

Hori guztia eskaintzen digu euskal argitaletxeen plazan heldu berri samarra den Meettok editorialak, labetik harako literatura itzulia azal ederto diseinatu batez eskaintzeko saio txalogarri eta eskerzan. Eta deituran euskararen oihartzuna duen Echenoz idazleak Euskal Herrian sorturiko musikariaz erabilitako prosa landua euskaraz emateko, horra hor Gerardo Markuletaren euskarazko itzulpen ezberrik gabe poetikoa. Euskal editoreren batek esana du euskal irakurleari gauzak erraztu behar zaizkiola, modu errazean eman behar zaizkiola, eta ez direla euskalkiak lar nahastu behar. Nekez erraztuko du itzultzaileak jatorrizkoan erraza ez dena, eta euskalkiak nahasteari dagokionez, izan bitez ondo etorri aberastasun guztiak. Irakurtzerakoan enpeinu apur bat jarrita, irakurlea berehala konturatuko da eskuratzen duen sariaren handiak irakurraldiko bidaiaren balioa handitu duela. Errazto ikusiko dugu, irakurri bitartean, ondoko besaulkian, geldi eta bare, hantxe ez balego bezala, jada hilik balego legetxe jesartzen den bidaide bat: Maurice Ravel.